

BALOREZKO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Hotza egiten duen egunean botak jantzi eta oinak goxo goxo edukitzea. Horrez gain euriaz babestu oinak lehorrak mantendu daitezten. Baita gure bezeroen erosotasunari inportantzia handia ematen diegu ere eta bota oso erosoak egingo ditugu. Motorzale gehienei gertatzen zaigun bezala, neguan oineko behatzak izoztu egiten zaizkigu beste bota mota konbentzionalekin. Horregatik gure bota kalefaktableak goxo-goxo mantenduko dizkizu oinak nahi duzun denbora guztiaz motorraren ginean disfrutatzeko.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Beste boten aldean beroak direlako eta hotza egiten duten egunetarako aproposak direlako. Horrez gain, boten kanpo itxura pertsonalizatu ahal izango da, bakoitzaren gustuetara moldatzeko horrela publiko gazteari eta ez hain gazteari erakargarria egingo zaizkio. Bestalde, botak oso erosoak dira eta zure oinari amoldatzen dira bere barne egiturari eta lotzeko dituen lokarri motari esker.